



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea  
AECT Euroregion Aquitania-Euskadi-Navarra  
GECT Euroregion Aquitaine-Euskadi-Navarre

## PRENTSA OHARRA NOTA DE PRENSA

### **Eusko Jaurlaritzak eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak Euro Basque Rugby Challenge (EBRC) aurkeztu dute, mugako bi aldeetako talde onenak biltzen dituen proiektu berria**

- *Bingen Zupiria sailburuak eta Euroeskualdeko jarduneko zuzendari Arola Urdangarinek aurkeztu dute Euskal Errugbi Liga honetako 1. Maila; beste bi kategoria ere izango ditu: emakumezkoena eta 2. Maila.*
- *Bere aurreneko urte honetan, esperientzia pilotu gisa, ligaxka formatuan garatuko da abuztuaren 17tik irailaren 7ra, eta talde hauek parte hartuko dute: Aviron Bayonnais, Biarritz Olympique-Pays Basque, Anglet, Hernani, Ordizia, Getxo eta Bera Bera.*

Donostia, 2019/07/29

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak gaur aurkeztu dute Euro Basque Rugby Challenge (EBRC)-Euskal Errugbi Liga, mugaz gaindiko kirol txapelketa bat bi aldeetako taldeak bilduko dituen. Euskadiko, Nafarroako eta Iparraldeko (Errugbi 64 Departamentu Batzordea) errugbi-federazioetako ordezkariekin batera eman dituzte ezagutzera Euskal Errugbi Liga honetako 1. Mailan parte hartuko duten zazpi taldeak. Aviron Bayonnais, Biarritz Olympique-Pays Basque, Anglet, Hernani, Ordizia, Getxo eta Bera Bera arituko dira norgehiagoka lehiaketa honen lehenengo edizioan. EBRC-Euskal Errugbi Ligak, halaber, beste bi kategoria izango ditu: emakumezkoena eta 2. Maila.

Donostiako Miramar Jauregian izan da proiektu honen aurkezpena, eta bertan izan dira Eusko Jaurlaritzako eta Euroeskualdeko ordezkariak, federazio eta klubetakoekin batera. Bingen Zupiria, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua; Arola Urdangarin, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko jarduneko zuzendaria; Iñaki Laskurain, Euskal Errugbi Federazioko presidentea, federazio horretako kide den Iñaki Ricarekin; eta Alain Fariscot, Errugbi 64 Departamentu Batzordeko federazioko presidentea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Euroeskualdearen bultzada ez ezik, EBRC-Euskal Errugbi Ligak hiru federazioen eta Nafarroako eta Akitania Berriko gobernuen babesa ere jaso du. Aviron Bayonnais, Biarritz Olympique-Pays Basque, Anglet, Hernani, Ordizia, Getxo eta Bera Bera taldeetako ordezkariak ere izan dira Donostiako aurkezpenean.

Zazpi talde horiek parte hartuko dute EBRC-Euskal Errugbi Liga honetako 1. Mailan. Aurreneko urte honetan, abuztuaren 17tik irailaren 7ra antolatuko da lehiaketa, final nagusia,

**INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN**

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea  
 AECT Euroregion Aquitania-Euskadi-Navarra  
 GECT Euroregion Aquitaine-Euskadi-Navarre

Ordiziako Altamirako estadioan izango delarik. 1. Maila bi taldetan banatzen da, Hegoaldeko eta Iparraldeko taldeak batuz.

A taldea:

- Aviron Bayonnais
- Hernani
- Getxo

B taldea:

- Biarritz Olympique-Pays Basque
- Anglet
- Ordizia
- Bera Bera

Ekipo horien arteko lehiak honela antolatu dira:

**A taldea**

<b>1. Jardunaldia</b>		
Abuztuak 17		
Getxo	vs.	Aviron
Hernani	vs.	-
<b>2. Jardunaldia</b>		
Abuztuak 24 eta 31		
Aviron	vs.	Hernani
Hernani	vs.	Getxo

**B taldea**

<b>1. Jardunaldia</b>		
abuztuak 24		
Anglet	vs.	Ordizia
Biarritz O.	vs.	Bera Bera
<b>2. Jardunaldia</b>		
Abuztuak 31		
Bera Bera	vs.	Anglet
Ordizia	vs.	Biarritz O.

**EBRC Finala (Ordizia)**

Irailak 7		
1. A taldea	vs.	1. B taldea

Gizonezkoen lehenengo maila honetaz gain, EBRC-Euskal Errugbi Ligak emakumezko txapelketa bat izango du, baita bigarren maila bat ere, eta datozen hilabeteetan aurkeztuko dira. Aurreneko urtea denez gero, lehiaketa guztiak ligaxka formatuan jokatu dira; dena dela, helburua da proiektu hau datozen urteotan hazten jarraitzea.

**Uztartze natural bat**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak proiektu honek kirolaren eta kulturaren ikuspegitik duen interesa azpimarratu du, baita Euroeskualdearen proiektua indartze aldera ere: "Kirolaren ikuspegitik ez du zentzurik Hegoaldeko taldeek Iparraldeari bizkar emateak, Bidasoaren beste aldean kirol maila eta zaletasuna izugarria dago eta. Hobetzeko tarte handia dago eta proiektu honek horretan lagunduko du. Era berean,

**INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN**

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea  
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra  
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

Iparraldeko taldeentzat ere oso proiektu interesgarria delakoan nago. Kirolaren eremutik harago, proiektu honek harremanak estutzeko aukera emango digu kultura bat eta hizkuntza bat partekatzen ditugun beste lurraldeekin, eta gainera, errugbia bezalako kirol baten balioen inguruan egingo dugu elkarlan hori. Bestalde, ekimen honek aukera emango digu Europako eremuan Euroeskualdearen proiektua eta Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria ardatza indartzeko”.

Iñaki Laskurain Euskal Errugbi Federazioko presidentek azpimarratu du “nabarmena” dela ekimen honek kirolaren ikuspegitik duen interesa: “Europar proiektu bat da, Euroeskualdearen esparruan garatuko dena, eta euskal errugbia du ardatz; hortik dator bere izena: Euro Basque Rugby Challenge. Nabarmena da halako ezaugarriak biltzen dituen txapelketa batek kirolaren ikuspegitik duen interesa. Hegoaldeko errugbiak erreferentzia argi bat du Iparraldean, badu nondik ikasi, eta hazteko eta hobetzeko baliagarria gertatuko zaio proiektua. Iparraldeko errugbiak, bere aldetik, Hegoaldean badu bide natural bat zaleen aldetik hazteko eta, baita ere, harrobia elikatzeko. Elkarlan naturala da, erabat, den-denok irtengo dira garaile. Euskal errugbiak lorpen handiak erdietsi ditu batu denean, eskutik joan denean. Hor daukagu Côte Basque taldeak All Blacks aurka lortutako garaipena edota Euskariansek lortutakoak 19 urtetik beherako Irlandaren kontra edo Leinsteren aurka. Halaber, ezin dugu ahaztu emakumezkoen Euskariansek lortu zuena Frantziaren aurka edo Hegoafrikan egindako biran. Esperientziak erakutsi digu elkarrekin joanda indartsuagoak garela”.